



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2020ko UZTAILAREN 17ko BILKURAREN AKTA.

Zoom plataformaren bidez eta 2020ko uztailaren 17ko 10:30ean, erakundearen Kontseilu Errektorearen bilkura telematikoa hasi da, eta honako pertsona hauek bertaratu dira:

- Bokala: Jordi Campás jauna, Ekonomiako zuzendaria, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari.
- Bokala: Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari.
- Bokala: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Bokala: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.

- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Ezin etorria adierazi dutenak:

- Lehendakaria: Jonan Fernández Erdozia jauna, Agentziako eta Kontseilu Errektoreko lehendakaria, EAEko lehendakariak eskuordetuta (11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa).
- Bokala: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantzazio Sanitarioko sailburuordea, Osasun Sailaren izenean.
- Bokala: Bittor Oroz Izaguirre jauna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari.
- Bokala: Diana Urrea Herrera andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari.
- Bokala: Eva Juez Garmendia andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Ainara Arrieta Archilla andrea –GLEAren Koordinazio Teknikoaren arduraduna– bertaratu da.

Sarrera

Idazkariak hartu du hitza bertaratuei ongietorria egiteko eta lehendakari Jonan Fernández jaunaren ezin etorria adierazteko.

Paul Ortega jauna izango da bilkuraren buru, eta honako hau izango da bilkuraren gai-zerrenda:

1. 2020ko maiatzaren 19an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
2. PRE ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Osasun Sailak, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Mugarik Gabeko Medikuek elkarrekin sinatutako lankidetzahitzarmena Covid-19aren larrialdiari erantzunez Perura euskal delegazio mediko bat bidaltzea babesteko.
4. Lanpostu Zerrenda aldatzen duen akordio-proposamena.
5. Galde-eskeak

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2020ko maiatzaren 19ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoarekin.

2. PRE ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa

Ekintza Humanitarioko laguntza iraunkorrari buruzko informazioa eman du Paulek, baita 2020ko ekitaldiari dagokion hornidura ekonomikorako bideratutako 1.800.000 €-ko gehikuntzari buruzkoa ere.

Ekimenei buruzko informazioa eman du Ainarak, 29 eskaeretatik 21 eskaera 50 punturekin baino gehiagorekin onartu direla adieraziz. 2 ekimen baztertuak izan dira 50 puntu baino gutxiago lortu dituztelako. 6 eskaera balioetsi gabe geratu dira 5.2 milioi eurorainoko hazkunde posiblearen zain. Deialdiaren ebazpenean Afrikaren lehentasuna da nabarmentzekoa, 12 proiektuetatik % 56.16 kontinente horretan egikaritzen baitira.

Kontsiderazio orokor gisa, batez besteko nota 56 puntuan dago, eta horren arrazoia zera da, baremoa exijentea dela, eta hezkuntza-arloko osagaia duten eta tokiko bazkideen gaitasunak sendotzen dituzten ekimenak balioesten dira, eta proiektu guztiek ez dituzte elementu horiek barnean hartzen.

Sofia Marroquínek galdetu du funtsen zabalkuntza aplikatu ahal izango ote duten eta Paul Ortega adierazi du Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren baimen posiblearen zain gaudela.

3. Covid-19aren larrialdiari erantzunez Perura euskal delegazio mediko bat bidaltzea babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Osasun Sailak, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Mugarik Gabeko Medikuak elkarteak **sinatutako lankidetzeta-hitzarmena onartzea.**

Paulek informatu du uztailaren hasieran Mugarik Gabeko Medikuak elkarteak Eusko Jaurlaritzari zuzendu zitzaizola Covid-19aren aurkako bere esperientzia Latinoamerikako beste herrialde batzuekin partekatu zezala eskatzeko, orain baitaude herrialde horiek pandemiaren faserik gogorrean. Pandemiak Perun duen bilakaera kontuan izanda, eta herrialdeko agintarien prestutasuna ikusita, horrelako ezaugarriak dituen esku-hartze baten egokitasuna ebaluatu zen. 2020ko uztailaren 1ean, Peruko Gobernuak Osasun Ministerioak formalki eskatu zion lehendakariari Eusko Jaurlaritzaren laguntza. Giza Eskubide, Elkarbizitza eta Lankidetzaren Idazkaritzaren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren arteko koordinazioarekin, esku-hartze humanitario hau prestatu da Mugarik Gabeko Medikuak elkartearekin batera.

30 arnagailu, 50 haizagailu, Norbera Babesteko Ekipamenduak, sendagaiak eta 8 asteko tarterako langile sanitarioak eramango dira guztira, 14 langile jada abiatu direlarik, eta haien artean antolamendu sanitarioko espezialistak daude, horixe baita Peruk duen gabezia handia. Azken batean, ezagutza eta ZIU eta ZIU Aurreko arloan esperientzia duten langileak eraman nahi dira. Agentziaren ekarpenari dagokionez, bidaiatze-txartelen, sendagaien eta alojamenduaren fakturen ordainketan lagunduko du. Ebaluatuko eta aztertuko den esperientzia pilotu bat da.

Jordi Campásek positiboki balioetsi du ekimena eta jardunbide egoki gisa zabaltzeko kasu bat dela gehitu du.

Paul Ortégak adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola proposamena onartzea. Bozkatu egin da eta aho batez onartu da

4.- GLEAREN LPZ aldatzen duen akordio-proposamena.

Otsailaren 11n 2020ko aurrekontuetan onartutako plantillaren hazkundeari buruzko informazioa eman zitzaion Kontseilu Errektoreari, lankidetzako teknikarien 7 plazari eta administrariaren 3 plazari dagokion hazkundeari buruzkoa. Kontseilu Errektore horretan jakinarazi zen plantilla-gehikuntza horrekin batera Kudeaketa Ekonomiko eta Aurrekontu Kudeaketako teknikariren plaza bat izapidetzen ari zirela, eta egingo ziren

hurrengo Kontseilu-bilkuretan onartuko zela plaza hori sortzea, oraindik zenbait administrazio-izapide betetzea falta baitzen. Behin beharrezkoak diren izapideak beteta, Kontseilu Errektoreari aurkeztu zaio plaza hori onar dezan.

Paul Ortegak adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola proposamena onartzea. Bozkatu egin da eta onartu egin da aurreko puntuan ezarritakoari jarraikiz.

5. Galde-eskeak

Paul Ortegak azaldu du egungo proiektu-deialdian 202 proiektu aurkeztu direla eta 3. kapituluan izandako hazkundera nabarmendu du, 55 ekimen aurkeztu baitira.

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE. Jonan Fernández Erdozia jauna,
Agentziaren eta bere Kontseilu
Errektorearen lehendakaria, EAEko
lehendakariak eskuordetuta (11/2017
Dekretua, apirilaren 25ekoa).

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektorearen idazkaria
GLEAren zuzendaria